

Txoria nintzela

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Txoria nintzela, txoria nintzela, sinistu nuen sinistu...». Hegaztien urrun begiratzeko gaitasuna dakarte Pirritx, Porrotx eta Marimototsek “Kuikui” lan berrian. Miopia garai hauetarako ezin aproposagoa. Kantu hori ahapeka ibiltzearekin batera, egunotan irakurri dudana aipu bat apuntatu dut koadernoan: «Egizu korrika, egizu hegan, erortzen bazara nik lagunduko dizut». Pigmalion efektua deituta-koarekin du harremana. Honen arabera, haur bati lasterketa bat korritzera doala «erori egingen zara» erraten badiozu, bai edo bai eroriko da. Aldiz, animatuz gero, deus erranen ez bazenio baino hobeki

moldatuko da. Bizi osorako balio duen efektu honek gure hitzen boterea erakusten digu eta oroitarazten digu egunero dugula aukera jendeari (aurrena geure buruari) hegala mozteko edo hegan egiten laguntzeko.

Aldea dago «zara» eta «egin duzu» edo «ez duzu egin»-en artean. «Alferra zara», edo «ez duzu lanik egin». «Motela zara», edo «ez zara azti ibili». Sarri erabiltzen ditugu «ni naiz», «nik inoiz», «nik beti» eta halako esapideak, bai gutaz bai bertzeez ari garenean. Izan ere, sinesmen mugatzaile aunitz ditugu, txiki-txikitatik bertzeengandik jaso ditugunak, etxetik hasita.

Oroitzen zara zure umetako etiketaz? Hagitz litekeena da oraingoa berdina izatea. Eta zer da garrantzitsua zuretzat? Zure balioez galdetzen ari naiz, ez zure ingurukoenez. Honekin lotuta, zeintzuk dira gozatzen dituzun gauzak? Zeintzuk dira zure ezkutuko iturriak edo dohai-nak? Txikitan edo gaztetan ongi, zure lekuan sentiarazten zintuztenak eta urteekin uzten joan zarenak? Podcast batean aditu nuen honen inguruan (Club de Malasmadres) eta ariketa hauek probatzen hasi naiz. Konpartitzea da nire balioetako bat eta hortik gonbidapena... «Amets polit hura, amets polit hura gaur ere nahi nuke sinistu». •

Usurbil txikia da

**Xabier Mikel
Errekondo**

Nor ez dago harro bere herriaz! Ezagutzen duen orok erranen dizu herri bizia dela Usurbil, eta harro gaude Sevillak baino kolore bizi eta ugariagoak dituelako JL Zumetaren eskutik. Egia hamaika Usurbil daudela eta baditugula ia beste inon ez dauden gutziak, potentzial izugarri-koak guztiak. Artea, Oria errio apartekoa (angulak, ontzigintza, alak, zampiurak...), Ez Dok Hamairu, errebotea, txalaparta, sagardogintza, ZeroZabor, ondarea, eus-kara, zaintza eredua, etab.

Egia izango da ere erromantikoegiak garela Usurbilen, Turismo Plana burura eramatera goazenean noiz eta turismo suntsitzailea denean zabaltzen ari dene-

an. Erromantikoak bai, baina kaskago-gorak ere bai.

Zazpi hilabeteko lanaren ostean, pasaden astean aurkeztu zaigu herritarroi Plana, Udalaren eta Jon Maiaren eskutik. Noiz eta Usurbilen 650. urtebetetzean.

Gustatu zait planteamendua. Anbizio handikoa, herriak dituen balioetan oinarritua eta egun ezinezkoa dirudien turismo jasangarri bat posible egin dezakeena. Hamaika Usurbil jasotzen ditu eta estrategia aurrera eramateko herria eta herritarrak dira subjektu. Baikorra naiz ametsak diruditenak egia bihurtzeko gai delako herri hau, auzolana eta parte-hartzea odolean daramatzalako aspaldidanik. Hain da anbiziotsua plana

ezen gauzatzeko zazpi urte ere ez direla nahikoak izango, baina nago beste 650 urtera begiek Usurbil aldatua ikusiko dutela, hobera aldatua, turismo ustelak garaitu ezina, txiki oraindik bere balioetan eta koloreetan bizi eta tinko euskarriturik.

Aukera paregabea da. Erronkak merezi du eta herria prest dago. Iraultza txikia litzateke, bai. Baina Galeanok dioten bezala, «jende txiki ugari, gauza txikiak egiten, leku txikietan, mundua alda dezake».

Mundua aldatzea posible da, eta ez bakarrik okerrerantz. 6.000 biztanleko herri txikia da Usurbil, eta tematiak gara iraultza txikiekin. •